



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO  
ESTATUKO IDAZKARITZA  
KOORDINAZIO AUTONOMIKORAKO ETA  
LOKALERAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

AUTONOMIA ERKIDEGOEKIKO ETA  
TOKIKO ERAKUNDEEKIKO ESKUMENAK  
KOORDINATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

## AUTONOMIA-ERKIDEGOEI EGINKIZUN ETA ZERBITZUEN ESKUALDAKETARI BURUZKO ERREGE DEKRETUAK TESTU OSOAK ETA EGUNERATUAK

Funtzio eta zerbitzuen eskualdatzeak autonomia erkidego bakoitzari bere autonomia estatutuaren arabera dagozkion eskumenak erabat gauzatzeko prozesu osagarriak dira. Horien bidez, estatutuaren arabera arlo jakin batean eskumenak dituen autonomia erkidego bakoitzak eskumen horri dagozkion funtzioak bere gain hartzen ditu, baita Estatuko Administrazio Orokorrek aipatu funtzioak gauzatzeko bideratzen dituen baliabide material, pertsonal eta ekonomikoak ere.

Bi alderen nahia uztartzen du, hots, Estatuarena eta autonomia erkidegoarena, eta, beraz, bi aldeek ados jarri behar dute prozesua martxan hartzeko, negoziatzeko eta burutzeko.

Konstituzioaren 147.2 d) artikulua dioenez, autonomia estatutuek, besteak beste, ondokoak jaso behar dituzte: "Konstituzioak ezarritako eremuaren barruan bereganaturiko eskumenak, eta eskumen horiei dagozkien zerbitzuak eskualdatzeko oinarriak". Horrenbestez, autonomia erkidego bakoitzeko autonomia estatutuek ezartzen dituzte funtzio eta zerbitzuen eskualdatzea arautuko duten printzipioak. Ildo horretan, Transferentzien Batzorde Mistoak sortuko da, Ministroen Kontseiluak errege dekretu bidez onartu behar izango dituen funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzeko erabakiak har ditzan.

Helburu horrekin, Estatuko Administrazio Orokorren eta dagokion autonomia erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak organo paritarioak izango dira, eta, bi aldeek antolaketa, egitura eta eginkizunak zehaztu ondoren, oro har, autonomia erkidegoen eskumenei dagozkien funtzioak mugatu eta Estatuaren zerbitzuak zehaztuko dituzte (funtzio horiek gauzatzeko beharrezkoak diren eta autonomia erkidegoari eskualdatu behar zaizkion baliabide pertsonal, material eta finantzarioak), baita eskualdatzea eraginkor izango den uea finkatu ere.

Dagokion Transferentzien Batzorde Mistoak funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzeko erabakia hartutakoan, bi administrazioen arteko negoziazio prozesuaren ostean, Ministroen Kontseiluari helaraziko zaio, errege dekretu bidez onartu eta aldizkari ofizialean argitaratu dezan.

Informazioa kronologikoki eta autonomia erkidegoka ordenatuta dago, eta aukera ematen du arlo ezberdinei buruzko funtzioak eta zerbitzuak edo, hala badagokio, horiei loturiko baliabideak eskualdatzeko erabakiak onartu dituzten edo hasierako prozesuaren ostean aipatu baliabideak ugaritzeko argitaratu diren errege dekretu guztien testua kontsultatzeko.

### Autonomia erkidegoa edo hiria aukeratu



Euskadi



Katalunia



Galizia



Andalusia



Asturiako  
Printzerria



Kantabria



Erioxa



Murtziako  
Eskualdea



Valentziako  
Erkidegoa



Aragoi



Gaztela-  
Mantxa



Kanariak



Nafarroako  
Foru  
Komunitatea



Extremadura



Balear  
Uhartek



Madrilgo  
Erkidegoa



Gaztela eta  
Leon



Ceutako  
hiria



Melillako  
hiria

Madril, 2012

Autonomia Erkidegoekiko Aldebiko Harremanen eta Eskualdatzeen  
Zuzendariordetza Nagusiak egin du argitalpen hau

Argitalpen ofizialen katalogo orokorra:  
<http://publicacionesoficiales.boe.es>

Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren Idazkaritza  
Nagusi Teknikoaren argitalpen katalogoa  
<http://www.seap.minhap.gob.es/es/publicaciones.html>

Argitaratzailea: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa.  
Idazkaritza Nagusi Teknikoa

NIPO: 630-12-069-1